

Bero-beroan

“Le Monde Diplomatique” hizkuntzei buruz

“MANIÈRE DE VOIR” bihilabetekaria argitaratzen du *Le Monde Diplomatique* hilabetekariak. Otsaila-martxoko 97. zenbakian hizkuntzei heldu die. *La bataille des langues* (hizkuntzen bataila) izenburua dator azalean. Berariaz zenbaki honetarako idatzitako artikulua gutxi dira, gehienak lehendik argitaratuak dira. Euskarari zuzenean lotutako artikulurik ez dugu ikusi. Alabaina, tarte zabala egin diote frantsesari eta baita ingelesari ere. Alemana, arabiera, katalana, Quebecoko errealitatea eta Paraguaykoa landu dituzte, besteak beste.

Hitza.info webgunea

EUSKAL HERRIKO ehundik gora udalerri buruzko informazioa bilduko dute *Hitza.info* webgunean. *Hitza* egunkariak argitaratzen diren eskualdeetako –Busturialdea, Donostia, Goierri, Lea-Arti-

bai eta Mutriku, Oarsoaldea, Tolosaldea eta Leitzaldea, eta Urola Kosta– eta beste zonalde batzuetako –Uribe-Kosta, Baztan...– informazioa eskainiko du, bertako komunikabideetara egindako loturen bidez.

ENAIk 4 milioi euroko aurrekontua

EUSKARAREN Nafar Institutuaren aurrekontua izango da hori 2009an. ENAIren gobernu kontseiluak hamabost kide izango ditu –Nafarroako Gobernu departamentu bakoitzak ordezkari bat izango du–; Carlos Perez Nieves Hezkuntzako kontseilaria izango da lehendakaria, eta ENAIko zuzendari Xabier Azanza lehendakariordea. Nabarmentzekoa da hamabost lagun horien artean Pedro Pegenaute Nafarroako Gobernu Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusi ohia dagoela, eta Xabier Azanza eta Julen Calvo soilik direla euskaldunak.

BAHEA

Lionel Jolyk *Jakinen* 164. zenbakian esanak: “Aplikaezina den zerbait onartzea ez da ona, zalantzarik gabe, jatorrizko helburua usteltzen uzten baita. Helburuek lortzeko modukoak izan behar dute. Euskal Herrian, Iparraldean, Nafarroan edo EAEn bizi diren pertsonek euskaraz jakin beharko luketela eta erabili beharko luketela legez onartuko balitz, antzeko zerbait litzateke: alferrikako ahalegin bat ez ezik, hizkuntz ekologiaren ikuspegitik astakeria bat.

Gandhiren hilketaren 60. urteurrenean, bere filosofia gogoratuko dugu hemen; bertan aipatzen denez, helburua lortzeko erabiltzen den bitartekoa helburua bera bezain garrantzitsua da. Borges autore argentinarrak horren garrantziaz ohartarazi zigun baita ere bere ipuin liluragarrien bitartez: errealtatearen eta fikzioaren arteko aldea mehea da eta mundua ez da dikotomikoa, ez da manikeista. Horrelako zerbait agindu zigun Borgesek: “Ondo aukeratu zure etsaia, bera bezalakoa bihurtzen bukatuko baituzu”. Hizkuntza gutxituen aldeko ahaleginak ikuspegi ekologiko eta holistikotik egin behar dira, sekula ez derrigortasunaren ikuspegitik. Gizartearen onarpena eta pertsonaren ongizatea lortu nahi baldin badira behintzat –eta, nire uste apalean hizkuntza gutxituak defenditzeak dituen benetako helburuak horiek biak dira hain zuzen ere–. Eta etsaia ondo aukeratu beharra aipatzen denean, azken finean D. Crystalen ikuspuntua gogoratzen dugu: hizkuntza gutxitu bat indarberritzeko lanean aritzen garenean ahalik eta indar gehien biltzen saiatu behar da, ez da etsairik eduki behar, indar positibo guztiak baliatu behar dira. Ez da inoren kontrako edo beste hizkuntza baten kontrako borroka, baizik eta humanitatearen aniztasunaren aldeko pausoa, besterik gabe”.

TALAIAN

Langileen odolustea gelditu

Joan den astean beste bi langile gaztek bizia galdu dute lan istriputan: 19 urtekoak Durangon (Bizkaia) eta 28 urtekoak Fustiñanan (Nafarroa). Azpikontratuak ziren, prekarietatearen ondorio larriak jasaten dituzten taldekoak. Aurten, 17 langile hil dira lan istripuetan. Beste askok hain larriak izan ez diren istripuak jasan dituzte. Aski da. Lan istripu horien baldintzak aztertuta ondorio garbia ateratzen da: prekarietateak hil egiten du. Azpikontratazioak hil egiten du. Lantokietako ikuskapen faltak edo hori behar bezalakoa ez izateak hil egiten du.

Langileen odoluste honekin amaitu beharra dago. Erroetara jo behar da. Ekoizpenaren eta gizartearen estamentu guztiek beraien erantzukizuna hartu eta neurri egoki eta eraginkorrenak hartu behar dituzte. Ezin diegu ardura batzuei bakarrik egotzi. Erantzukizuna guztiona da. Enpresariak hezkuntza eta segurtasun neurrietan inbertitu behar du, baina langile, batzorde edo sindikatuek neurri horiek eskatu, ezarri eta ezarraziti behar dituzte. Langileek eta euren ordezkariak planto egin behar dute segurtasunik ez duen lanaren aurrean. Gobernuak prekarietatea eta azpikontratazio erraza ezabatu behar dute. Lantoki ikuskapena kontrolatu behar dute, lantoki guztiek segurtasun erabatekoa izan dezaten. Eta Justiziak ofizioz ekin behar du lan istripu larria gertatu orduko, erantzukizun penalak betearazteko.

Azken gogoeta. Politikarientzat, galdutako bizitza horiek atentatu batek eragindakoen baino gutxiago balio dute. Hipokritak. Hauteskundeetako interesek baino ez ditu kezkatzen.

Juan Mari Arregi

Negoiazioa edo isolamendua

JAGOBA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

BAKE PROZESUAN zehar barra-barra entzun zen hiruki politikoa-ren hiru erpinei buruz: PSE, EAJ eta Batasuna. Etorkizun hurbilari heldu aurretik ikus dezagun, telegrafikoki bada ere, nola geratu diren hauteskundeendoren.

Patxi Lopezek gidatutakoak apartretan dira, garaipenez gainezka, Ajuria Enea ate handitik sartzeko ametsetan blai. Eta haietako kide eta zale asko jota, Isaias Carrascoren gisako "mezua" bihurtzeko izua gainetik kendu ezinean.

Alderdiaren 1986ko zatiketaren ondoren, une latzenetakoa bizitzen ari dira jeltzaleak; Josu Jon Imazen agurrean legez, EAJ den transatlantiko horri norabide finkorik emateko zalantza bizian antzematen da bere zuzendaritza.

Zehaztu ezin daitezkeen datu opa-roekin eskuetan, ezker abertzaleak pozik egoteko moduko arrazoiak ditu, Zapatero eta ETaren erasoaldiei primeran eutsi die, batez ere Gipuzkoan. Harrokerietarako arrazoi gutxi du, ordea, azken 30 urteetako une latzenetakoa bizi baitu; eta, seguruenik, epe laburrean biziko duena ere ez da makala izango.

PPk zauriak miatzatzen jarraitzen du, ez Raxoik Madrilen ezta San Gilek ere hemen ez dute asmatu. Madrilgo erreferentzia nagusia euskal gizartean sozialistak dira eta ez popularrak, baina asko dira eta, eskuinaren gose eta amorrazioa akuilu, jadanik hurrengorako jauzia prestatzen ari dira.

EA, Ezker Batua eta Aralarrek zur eta lur jarraitzen dute, balizko koalizio galduaren erresuman galduak. Txikienek estrategia bateratzaileei ekiten ez badiote, zergatik handiek bai?



Abertzaleen koalizioek ondo eutsi diote egoerari, batez ere Ipar Euskal Herrian EH Bai ekimenarekin, baina baita Nafarroa Baik ere. Ez da errealista Espainiako hauteskunde batzuetan PSN garaitzea, hori jakin badakite NaBaiko agintariak. Abertzaletasuna seguruenik bere sabaian dago Nafarroan, eta NaBaik nahiko lan izango du bere zorua mantentzen.

AZKENEAN. epe labur eta ertainera, Jose Luis Rodriguez Zapaterok, beste bi erpinei dagokienez, bi desafio nagusi ditu negoziatioaren eta bakearen eremuetan. Hiruko gobernuarekin, eta funtsean jeltzaleekin, EAEko herritarren erabaki eskubidearen inguruan noraino iristeko prest dagoen erakutsi beharko du, horretarako Ibarretxeren herri kontsultaren abagune hau profitatuz, edo bestelako bideren bat landuz. Horretarako, Jaurlari-tzaren bide-orriak datozen hilabete hauek balia ditzake, edo seguruago dena, besteenak diren tenpus horietatik ihes egin eta hauteskun

de autonomikoei lasai itxaron, ondorengo emaitzekin hobeto negoziatuko duelakoan.

Ezker abertzaleari begira, erronka aurreko negoziatio saioa amaitu gabekotzat jotzea litzateke, eta Loiolan ihes egindako akordioa erdiestea. Ez da samur ikusten, konfiantzak oso urratuta daude eta denak adierazten du aldean indar erakustaldi berri baten aurrean gaudela. Gaitza bai, baina esperantzarik gabe ere ez da erraza normaltasunez bizitzea.

AJURIA ENEKO itunaren sorreraren 20. urteurrena iragan berri da urtarrilean. Ezker abertzalea zokoratzeko estrategia hura –hori izan baitzen nagusiki– hutsala izan zela erakutsi du denborak. Egoera hartara itzultzeko tentazioa antzeman liteke zenbait proposamen eta ildotan, EAE-ANV alkatetzetatik kanporatzeko proposamenetan, adibidez.

Ezker abertzaleak ere ihes egin beharko luke balizko isolamendueta-tik eta horretarako dena ez dago besteen eskuetan. "Denak nire aurka" horrek balio dezake hauteskunde kanpainan botoei eusteko, baina ez da errealista eguneroko politikan, eta horren erakusgarri dira beste indar batzuekin dituen gobernu akordioak edo gai askotan eta hainbat gunetan diren adostasun eta ekimen bateratuak.

Baina posible ote da isolamendutik ihes egitea ETAk Carrascorena moduko hilketekin jarraitzen badu? Gaitza. Errepresioak trikua-ren defentsara eraman dezake ezker abertzalea, baina posizio horretatik politika eraginkorra egitea ia ezinezkoa da.